

BAGABILTZA

LHK-CRLko euskara-planaren buletina. 6. zk. 2022ko maiatza.

LEHEN EUSKARA-SAIOA



Lan Harremanen Kontseiluan Euskara Saioak izeneko ekitaldi bereziak antolatzea zen 2022ko Kudeaketa Planaren helburuetako bat, eta apirilaren 7an egin zen lehenengoa, Bilboko egoitzan.

Hiru ataleko saioa izan zen, izan ere, itzultzaile neuronalekin jarduteko saio praktikoaren zuzenketarekin hasi ginen, ondoren Korrikari lotutako bideoa

ikusi genuen (22. edizio betean), eta amaitzeko, galderajoko interaktibo polita egin genuen.

Berriro ere azpimarratzekoa da langileen parte hartzea, zuzendaritzako kideak barne. Jendea horrelakoetara gogotsu animatzen da, eta horrek aurrera begira hauspoa ematen digu.

Bigarren Euskara Saioa irailean egitea aurreikusten da.

Karmele

Etxagibel



Precon, makinatxo bat egoera desberdin sortzen dire, eta noizbehinke azarretzeko modukoak izeten dire.

Horretarikoak gertaketan direnean, gogoan eukiten dot amak esaten dustena, hain zuzen be, gure birramama Mariak esaten ebana: "Kontrarixuei kandela batekin baino hoba da kandela bikin argixe emotie". Eta hori kontuan hartuz, jendeari zerbitzu on bat ematen ahaleginketan gare gu beti, nahiz eta batzuetan erreza izan ez.

Alexi kontau nion istorixatxo hau egun baten, eta Josuk esan eustenien BAGABILTZA honetan zutabetxo bat egin behar nuela, animatu eusten kontatzerara... Eta nik, esana beteaz, ba hauxe egin dot. Espero dot gustetie.

IDATZIZKO BARNE-MEZUEN NEURKETA

2021eko irailean egin genuen bezala, maiatzean barne-mezuen neurketa egin dugu. Horretarako, langile bakoitzak beste kide bati bidalitako azken 10 mezuen hizkuntza hartu da kontuan. Guztira, 110 mezuren lagina erabili da.

2021eko eta 2022ko emaitzak grafikoetan dituzue. Euskarazko mezuen kopuruak gora egin du. Horrek lankideen gaitasuna eta atxikimendua erakusten du, beraz, ESKERRIK ASKO! Euskara Batzordean, zuekin batera, LHK euskalduntzen jarraituko dugu.

MEZU LABURREN NEURKETA 2021



MEZU LABURREN NEURKETA 2022

